

## MEMORIA

### URRETXUKO LANDA-BIDE PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN UDAL-ORDENANTZA EGITEA

ARAU ONARTZEKO PROZEDURAREN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA.

39/2015 Legearen, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 133. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lege-proiektuak edo lege-aurreproiektuak eta erregelamenduak egin aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen subjektuen eta elkarte adierazgarrienen iritzia jasotzeko, eta, beraz, hori betetzeko, aldez aurreko kontsulta egin behar da landa-bidea publikoak arautzeko udal-ordenantza egiteko prozeduran.

Arauaren aurrekariak	<p>7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen eta 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena, Udalerria ezartzen dute tokiko bide publikoak mantendu eta zaintzeko organo eskuduntzat.</p> <p>Urretxuko udalerrian ez da bide publikoak arautzen dituen ordenantzarik izan aurrekari gisa. Aurretik, ordea, erabilera publikoko baso-bide eta -pista pribatuen mantentze-lanak eta ustiapena arautzeko esparru-akordio bat egin zen.</p>
Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak	Udal Ordenantzaren helburua bideen erabilera arautzea da, bide horiek erabilera-baldintza onetan egon daitezen.



Onartzeko beharra eta egokitasuna	Bide-erabiltzaileek bete beharreko erabilera-araubidea eta betebeharrak ezarri nahi dira, udal-eskumenekoak diren titulartasun publikoko bideen kudeaketa hobetzeko.
Arauren helburua	<p>Ordenantzaren helburu nagusia bideak egoera onean mantentzea da.</p> <p>Horretarako, beharrezkoa da bideen erabilera berezia arautzea, erabilera intentsibo horrek eragiten baitu, gehienetan, bideak hondatzea.</p> <p>Era berean, beharrezkoa da baso-ustiapeneko lanak egiten dituzten erabiltzaileei betebeharrak ezartzea, bide behar bezalako garbitasun-baldintzetan mantendu dezaten.</p> <p>Azkenik, arau-hausteen araubidea eta dagozkien zehapenak ezarriko dira, ordenantza betetzen dela bermatzeko.</p>
Balizko irtenbide arautzaile eta ez-erregulatzailak.	Alternatiba ordenantza ez egitea litzateke. Hala ere, bideen erabilera arautzeak bideen kudeaketa hobetzen lagunduko duela uste da.